

Nafarroako Esaera Zaharrak. Lizarraga.

<http://mediateka.fonoteka.com>

Nafarroako Gobernua - Gobierno de Navarra
Euskarabidea - Instituto Navarro del Vascuence
Nafarroako Euskararen Mediaketa - Mediateca del Vascuence de Navarra
<http://mediateka.fonoteka.com>

Iturria:

Damaso Intza, Nafarroa-ko euskal esaera zaharrak, 1974.

Bertsio informatiko honen egilea:

Elea

Nafarroako Euskararen Mediaketak egindako lanak publikoak dira eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

Nafarroako Esaera Zaharrak. Lizarraga.

- 113 *Besteen auntzek, esne asko.*
Besteen gauzak obe iduritzen.
- 114 *Besteen oñaziak guri min gutxi.*
Guri axola gutxi; ez giñuke olako izan bear...
- 115 *Besteen gauzak jakin-gura dabillenari, gutxi ta oker.*
- 116 *Beti laxterka, ta beti geldi.*
Gauzak tarrapataka egin, eta aurrerapenik bat ere ez.
- 117 *Bota (r) ik dagon arbolatik aixe egiten da egurra.*
Osasuna edo ondasunak galdu dituenaz berdin gertatzen. Oihenart-ek:
"Bago erorira egurkari guziak laster ari dira" (64).
- 118 *Daki (e) nak daki; ez dakinak baleki!*
Bizitzako amaika gauzetan berdin.
- 119 *Donak gabe, ta ez donak jabe (donak = duenak).*
Bestentzat badaki eta beretzat ez.
- 120 *Elorria lorean ta artzaia mendi gañean.*
Elorria lorezearan larre ugari izaten.
- 121 *Eman goraintziak! -Errax aski e (ra) mango ditut.*
Ez dute pisu aundirik eta aise eramango ditut.
- 122 *Erraiek puskatuko dizkiet!*
Amak semeari asarrean esana.
- 123 *Falso zikiñek! Mal fin egin beaizie (bear duzue)!*
- 124 *Fan ai, berri on!*
Joan adi, berriketari!
- 125 *Gauesko lana, egunes agertu.*
Lan ona ala txarra, egunez agertzen.
- 126 *Gauza bere garaian.*
Beti ola esan ta egingo bagiñu...

- 127 *Jende tunantiak zopa gutxi.*
Erderaz "gente tuna poca sopa".
- 128 *Lakuntza, eun barako putza.*
- 129 *Langille onendako nonnai toki: langille txarrendako iñun ez.*
- 130 *Lurra baño falsu (a) goa aiz.*
Alfer utsa aiz.
- 131 *Nagusi askoen astoa goseak il.*
Lanerako guziak nai, jatera emateko iñor ez.
- 132 *Opuak beti alde ontan!*
Oa pikuetara! Opuak (orpuak) nondik ateratzen dan bat eta alde artara baitaude. Alde emendik!
- 133 *Ori ez da zure baratzeko baratxuria.*
Gauza ori ez da zuk asmatua.
- 134 *Orratz baten galdu-gorde (r) ik ez, eta berriketa franko.*
- 135 *Santa Kruz maiatzeko, gure soruak laiatzeko.*
Bear litzaken garaia joaten.
- 136 *Suie sura eta erraño erre.*
Suia ta erraña beti elkarrekin aserre.
- 137 *Txotxa baño aurra obe.*
Zer balio du txotxak aurraren aldean?
- 138 *Urri-txerri, mal txerri.*
Urrian jaiotakoa otzak eta goseak iltzeko arriskua.
- 139 *Zaarra ta biarra.*
Bi gaitz batera.
- 140 *Zein gibel-aundia aizen! Ez aiz ustelduko!*
- 141 *Zorrak zor, lepoa lodi.*
Zordun axolakabea.
- Tantanrantana, nere laztana,*
ez egin lorik basuan,
aizteritxuak eamango zaitu
erbia zeralakuan (Lizarraga).

Seaska-eresiak.

Martin Ijurko (Lizarragako apaiza) 1912-1936

Mikaela Mikelez. Eskolastika Adrian. 1936-1973.